# berria




«Erregulartasuna lortu, eta sendoak gara. Horregatik gaude lehen postuan»

**Dani Estrada**
Alaveseko jokalaria • 22


LARUNBATA, 2016KO URTARRILAREN 9A • XIV. URTEA • 3.893. ZENBAKIA • WWW.BERRIA.EUS — 1,50 EURO





**Hegazti gripea atzemana izan den etxaldea, Gabadin.** ISABELLE MIQUELESTORENA

# Amikuze osora hedatu dituzte kontrol arauak

Hegazti gripearen kontrako kontrol neurriak Amikuzeko 26 herrietara eta Biarnora hedatu ditu prefetak, gutxienez hilabete baterako • Merkatu eta hegazti erakusketak debekatu eta higiene neurri zorrotzak agindu ditu • 2

## Harian 2

### EBB eta herrialdeetako buruak batera berritzeko prozesua abian du EAJk

Araba Buru Batzarrerako hiru hautagai aurkeztu dira, Xabier Agirreren lekukoa hartzeko. Gainerako herrialdeetan burukide bana aurkeztu da. EBBko presidentea, burukideak eta herrialdeetako presidenteak otsail erdi aldera aukeratuko dituzte. • 4

### *Sostengua jomugan*

Bitartekariak, abokatuak, Jaiki Hadi elkartea, Herrira, Etxerat... Euskal presoen babes sarea jarri du jomugan Espainiako Gobernuak azkeneko bi urteotan. Zalantzarik gabe diote, ordea, presoei «beti» emango dietela sostengua eta laguntza. • 6

### Euskalerria Irratiari eman diote lizentzia, ofizialki, foru aginduaren bidez

Nafarroako Aldizkari Ofizialak atzo argitaratu zuen agindua, Iruñeriko euskal irratiari lizentzia emateko. Dokumentu batean formalizatzea baino ez zaio falta. Frekuentzia ere aldatuko dute, FMko 98.3ra pasatzeko. • 9

### Langileak zahartzen ari direla eta laster falta izan litekeela esan du Adegik

Gipuzkoako langileen %34k 50 urte baino gehiago dituzte. Gazteak lan merkatuan sartzeko zailtasunengatik zahartu dira langileak, eta 2029an %42 inguru izan litezke 50 urtez gorakoak, Adegiren txosten batek dioenez. • 12

### Akordiorik ez dago, baina «esperantza izpi bat» ikusten du ANCk

Junts Pel Si eta CUP bigarren egunez batzartu dira, ANC Kataluniako Batzar Nazionalaren bitartekaritzarekin. ANCk utzi egin du bilera, eta azken orduetan akordio bat egitea alderdien esku dagoela adierazi du. • 15

**Mantangorri** • GEHIGARRIA



# Zipriztintzeko pronto

Eguzki asko jaso du sagarrak, eta horrek azukrea ugaritu du: gradu gehiago izango du sagardoak, baina freskoa eta usaintsua izango dela diote ekoizleek • Prest daude asteazkenean txotx garaia hasteko • 38

ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS